

AZTERKETAK | 46

2022ko ABENDUA



**2023ko EAEko
eta Nafarroako
aurrekontuen analisia:
zer dago
propagandaren
atzean?**

2023ko EAeko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

1. SARRERA	3
2. MARKO MAKROEKONOMIKOA	4
3. EAE	4
3.1. 2021eko aurrekontu politikaren analisia	4
3.2. 2022ko aurrekontu politikaren analisia	6
3.3. 2023ko aurrekontu proiektuaren analisia	8
4. NAFARROA	15
4.1. 2023ko aurrekontu politikaren analisia	15
4.2. EH Bildurekin egindako akordioak ez du Gobernuaren aurrekontu antisoziala baldintzatzen	23
4.3. Administrazioiko langileek erosteko ahalmen gehiago galduko dute.....	25
4.4. Guardia Zibilak Foruzaingora pasatzeko pasabidea mantentzen da	25
5. EUROPA	26
6. ONDORIOAK	27
7. PROPOSAMENAK	28

1. SARRERA

2023rako aurrekontuek egonkortzaile gisa jardun beharko lukete zailtasunak dituzten pertsona guztiei laguntzeko, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko eta arlo publikoa ekonomiaren eragile nagusi gisa jartzeko. Are gehiago aurrekontu hauek ziurgabetasunez betetako egoera batean iristen direnean, bai eta gastu sozialean inbertitzeko defizita dagoenean ere, aurreko urteetan biztanleriaren beharrei aurre egiteko partidak gutxi handitu zirelako.

Arlo ekonomikoari dagokionez, bi gai aipatu behar dira. Lehenik eta behin, prezioen igoera orokorra eta soldaten geldialdia. Horrek eros ahalmenaren aurrekaririk gabeko galera eragiten duena, bereziki errenta txikiak dituzten pertsonengan. Bigarrenik, BPGaren dezelerazioa, epe ertainean ondorio negatiboak izango dituen.

Egoera sozialari dagokionez, gogora dezagun pandemiak ondorio kaltegarriak eragin zizkiela herritar gehienei, desberdintasunak nabarmen areagotuz. Aurreko aurrekontuen ezaugarri nagusia izan zen ez zela inbertsio nahikorik egin osasunean, hezkuntzan eta funtsezko beste sektore batzuetan.

Horretaz gain, gogoratu behar da 2023rako arau fiskalak etenda daudela oraindik. Hau da, administrazioek ez dituzte urte horietarako defizit publikoaren eta zor publikoaren mugak bete behar (BPGaren % 3 eta % 60koak zirenak, hurrenez hurren), ezta gastu-araua ere. Gainera, proiektuak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) Europako funtsak txertatzen ditu lehen aldiz diru-sarreraren aurrekontuan, Next Generation EU (NGEU) paketearen barruan. Funtsen erregelamenduak ezartzen duenez, ez dira erabili behar aurrekontu arrunta estaltzeko, aurrekontuaz gain inbertsio gehigarriak egiteko baizik (gehigarritasun-printzipioa). Horregatik kendu egin dira diru-sarreraren eta gastuen partidetatik.

Txosten honetan EAEko eta Nafarroako aurrekontuak banan-banan aztertuko dira. Azterketa horretan sartu aurretik, datoen urteetako aurreikuspen makroekonomikoen erreposoa egingo dugu. EAEko aurrekontuari dagokionez, 2021, 2022 eta 2023ko aurrekontu-politikak jorratuko dira. Nafarroan, 2023ko aurrekontu-politika aztertuko da. Bi ataletan diru-sarrerak, gastua eta osasunera eta hezkuntzara bideratutako zenbatekoak aztertuko dira, besteak beste. Bestalde, osasuna eta hezkuntza bezalako gaitan Europarekiko alderaketa egin da. Azkenik, ondorioei atal bat eskainiko diogu, eta diru-sarreraren eta gastuen arloko proposamen batzuk egingo ditugu.

2. MARKO MAKROEKONOMIKOA

Ziurgabetasunez betetako testuinguru honetan, zaila da datozen hilabeteetan gertatuko dena aurreratzea. Hala ere, badira erakunde guztiek partekatzen dituzten joera batzuk. BPGri dagokionez, 2021etik egin diren aurreikuspen guztiak beherantz berrikusi dira. Aurtengo abenduko egoera eta joan den abendukoa oso desberdinak dira. Europako Batzordearen udazkeneko azken txostenaren arabera, Euroguneko BPG % 3,3ko hazkundearekin amaituko da urtea, baina ekonomia % 0,3raino motelduko egingo da 2023an. 2024rako hazkunde apur bat handiagoa espero da, % 1,5ekoa.

Aurrekontuak egiterakoan, ezinbestekoa da egoera makroekonomikoaren azterketa zorrotza eta zuhurra egitea, aurrekontuek unean uneko egoerari erantzun behar baitiote. Aurreko urtean gertatu zen bezala, Ekonomia eta Ogasun Sailek egoera ekonomiko baikorra erakusten dute berriro, datorren urterako atzeraldi posible bati buruz hitz egiten hasi diren beste erakunde batzuekin alderatuz.

Eusko Jaurlaritzak % 4,2ko hazkundera aurreikusten du 2022rako, eta % 2,1ekoa 2023rako. Nafarroako Gobernuak, berriz, % 4ko 2022rako, eta %1,4 2023rako. Aurreikuspen horien aurrean, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek (AIReF gaztelaniaz) ohartarazi du Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egindako aurreikuspenak baikorregiak direla lehenengo kasuan, eta ez oso gertagarriak bigarrean. AIReF-ek urte honetarako % 3,9ko hazkundera aurreikusten du EAEn eta % 3koa Nafarroan. 2023an % 1,5era murrizten du EAEkoa eta %0,6ra Nafarroakoa. Garrantzitsua da aurreikuspen horiek kontuan hartzea, hazkunde ekonomikoak eragin zuzena baitu enplegua sortzeko edo suntsitzeko orduan.

Guzti horri inflazioaren arazoa gehitu behar zaio. Elikagaiak, elektrizitatea, energia edo garraioa bezalako oinarrizko produktu eta zerbitzuen prezioen igoerak eta soldatak ez eguneratzeak eros-teko ahalmenaren galera nabarmena eragin dute, eta 2023an ere horrela jarraitzea aurreikusten da. Gastu publikoaren igoerak ez ditu inflazioaren ondorioak konpentsatuko, kontuan hartuz 2022rako BPGaren deflaktorea % 4,2koa dela eta 2023rako % 3koa.

3. EAE

3.1. 2021eko aurrekontu politikaren analisia

2021. urtea 13.457 milioi euroko diru-sarrerekin itxi zen (BEM kenduta), aurrekontuan aurreikusitakoa baino % 8,2 gehiago. Hazkunde handiena Foru Aldundien ekarpenetatik etorri zen, % 12,6ko igoerarekin, hau da, 1.211 milioi gehiago guztira. Espainiako sektore publikoan egindako transferentziek ere aurrekontuan aurreikusitakoa baino askoz gehiago ekarri zuten; zehazki, 886 milioi gehiago. Bestalde, EBrekiko finantza-harremanak 116 milioi gehiago izan ziren.

Gehikuntza horren ondorioz, zorraren jaulkipena ez zen aurrekusitakoa bezain handia izan. Aurrekontuen likidazioaren arabera, guztira 1.165 milioi euroko zenbatekoa jaulki zen, aurrekontuan sartutako 2.552 milioien orde. Hau da, aurrekusitako zenbatekoaren erdia baino gutxiago jaulki da.

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

2021eko aurrekontu proiektuaren eta likidazioaren diru-sarreraren taula (milioi €)

	2021 (proiektua)	2021 (likidazioa)	Aldakuntza
Erakundeen baliabideak eta konpromisoak	9.806	12.019	+2.213 (+%22,6)
Foru Aldundiak	9.613	10.830	+1.211 (+%12,6)
Finantza-harremanak Espainiako sektore publikoarekin	84	970	+886 (+%1.054)
Europar Batasunarekiko finantza-harremanak	102	219	+116 (+%114,7)
Bestelakoak (balia. propioak)	84	273	+189 (+%225)
Zor publikoa	2.552	1.165	-1.387 (-%54,3)
GUZTIRA BEM gabe	12.442	13.457	+1.015 (+%8,2)


Aurrekontu horretatik kanpo uzten dugu Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa (BEM), haren erregelamenduak berak ezartzen baitu funts horiek ez direla erabili behar aurrekontu arrunterako, baizik eta aurrekontuaz gain beste inbertsio batzuk egiteko (gehikuntza-printzipioa), batez ere trantsizio ekologikoari eta digitalizazioari lotutakoak. Eusko Jaurlaritzak berak, aurrekontu-proiektuaren azalpen-memorian, diru-sarrera horiek eta ohikoak bereizten ditu.

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa

	0	344
--	----------	------------

Gastuaren likidazioari dagokionez, 2021eko aurrekontu-proiektuak 12.442 milioi euroko gastua zuen guztira. 2021eko aurrekontuaren azken gastua 12.615 milioikoa izan zen MRR gabe, hau da, Eusko Jaurlaritzak aurreikusi zuena baino % 1,4 gehiago baino ez zuen gastatu. Adibidez, osasunean igoera % 4,7koa baino ez zen izan eta hezkuntzan % 2,6koa. Beraz, pandemiaren ondorioei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua handitzea beharrezkoena zenean (haren esku-menak, funtsean, gizarte-politiketan oinarritzen dira), are gehiago nabarmendu da horri uko egin ziola. Argi geratu da lehentasuna ahalik eta gutxien gastatzea izan zela.

2021eko aurrekontu-proiektua eta gastuen eta diru-sarreraren likidazioa (milioi €)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda 2021eko aurrekontu-proiektuan eta 2021eko aurrekontuen likidazioan oinarrituta

Ondorioz, aurrekontu arruntaren emaitzak 842 milioi euroko saldo positiboa utzi zuen:

$$13.457 - 12.615 = 842 \text{ milioi euro}$$

Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitzak murriztuta (-40), 802 milioiko aurrekontu-superabita utzi zuen 2021 urteak. Zenbateko horri 2020ko diruzaintzako soberakinean zegoena gehitu behar zaio, hau da, 1.237 milioi euro. Ondoren 162 milioi, eragindako diruzaintzako gerakin kontzeptu gisa kentzen badizkiogu, 2021/12/31eko diruzaintzako gerakin erabilgarria 1.877 milioi eurotan kokatu zen.

Emitza eta gerakina 2021 urtean (milioi €)

Aurrekontu arruntaren emaitza	842
Onartutako eskubideak	13.457
Onartutako obligazioak	-12.615
Aurreko ekitaldietako eragiketen emaitza	-40
2021EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA	802

+

DIRUZAINZAKO GERAKINA 2020/12/31n	1.237
--	--------------

=

DIRUZAINZAKO GERAKINA 2021/12/31n	2.039
--	--------------

-

ERAGINDAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	162
---	------------

=

DIRUZAINZAKO GERAKIN ERABILGARRIA 2021/12/31n	1.877
--	--------------

3.2. 2022ko aurrekontu politikaren analisisia

Aurtengo aurrekontu-politika baloratzeko, Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako itxiera-aurreikuspena dugu. Lehen adierazi dugun bezala, behin-behineko zifrak dira, eta, beraz, azken likidazioarekin alda daitezke.

Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak aurrekontu-proiektuan aurreikusitakoak baino txikiagoak izatea aurreikusten da. 13.108 milioi ezarri ziren proiektuan. Hala ere, Jaurlaritzaren itxiera aurreikuspenen arabera, zifra 12.767 milioi eurokoa izango da BEM gabe, 341 milioi euro gutxiagokoa.

Foru Aldundiek egindako ekarpenak dira aurrekontuan pisu handiena dutenak (% 90,4) eta haiei erreparatzen badiegu 544 milioiko igoera aurreikusten da aurrekontuan jasotakoarekin alderatuta. Horrek, termino erlatiboetan, % 4,9ko hazkundera suposatzen du. Horregatik, ondorioztatzen dugu Foru Aldundien ekarpenen aurrekontua oso zuhurra izan zela 2021ean.

Aldundien ekarpenen igoerarekin batera, Espainiako sektore publikoarekiko finantza-harremanen zenbatekoak hazi egingo dira, 83 milioitik 280ra. Europar Batasunarekiko finantza-harremanen zenbatekoak, berriz, 259tik 182ra jaitsiko dira. Ondorioz, baliabide eta konpromiso instituzionalek 666 milioi euro egingo dute gora, eta 12.011 milioi eurora iritsiko dira.

2023ko EAeko eta Nafarroako aurrekontuen analisisa: zer dago propagandaren atzean?

7. or.

Diru-sarrera horiek handitu egin direnez, Eusko Jurlaritzak, 2021ean bezala, ez du aurrekontuan jasota zeukan zor guztia jaulki behar izan. Iaz ohartarazi genuen jaulki nahi zen zorraren zenbatekoa oso handia zela, eta, azkenean, aurrekontuan jasotakoaren heren bat jaulkiko da, ia 1.000 milioi gutxiago, hau da, 1.430 milioitik 497 milioira igaroko da. Horrek diru-sarrerak murriztea eragin du, aurreikusita zegoenarekin alderatuta.

2022eko aurrekontu proiektuaren eta likidazioaren diru-sarreraren taula (milioi €)

	2022 (proiektua)	2022 (itxiera aurr.)	Aldakuntza
Erakundeen baliabideak eta konpromisoak	11.345	12.011	+666 (+%5,8)
Foru Aldundiak	11.004	11.547	+544 (+%4,9)
Finantza-harremanak Espainiako sektore publikoarekin	83	280	+197 (+%239)
Europar Batasunarekiko finantza-harremanak	259	182	-76 (-%29)
Bestelakoak (baliabide prop.)	333	260	-73 (-%22)
Zor publikoa	1.430	497	-933 (-%65)
GUZTIRA BEM gabe	13.108	12.767	-341 (-%2,6)
Gainera, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen partidak sartu dira, 391 milioikoak.			
Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa	0	391	


Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda 2022ko aurrekontu-proiektuan eta 2022ko aurrekontuen likidazioan oinarrituta

2022ko aurrekontuaren gastua gauzatzeari dagokionez, ikusten dugu gastuaren itxiera aurreikuspena aurrekontuan ezarritakoa baino handiagoa dela. 2022rako proiektuak 13.108 milioi euroko guztizko gastua jasotzen zuen, eta aurreikusitako itxiera-zifra 13.636 milioikoa da BEM gabe. Horrek esan nahi du aurrekontuan aurreikusitakoa baino 528 milioi gehiago gastatuko direla (+%4).

Sekzioen arabeko azterketari dagokionez, gehikuntzak Lana eta Enplegua atalean zentratzen dira gehienbat. Zehazki, 150 milioi gehiago daude. Hezkuntza eta osasuna ere igotzea espera da, % 4,3 eta % 10,9, hurrenez hurren. Hala ere, berdintasunean, justizian eta gizarte-politikan, zenbatekoak % 3,6 murriztuko dira.

Aurrekontua eta gastuen itxieraren aurreikuspena 2022 (milioi €)

8. or.



Iturria: 2022ko aurrekontuen proiektua eta 2022ko aurrekontuaren itxiera aurreikuspena

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismitik 292 milioi euro aurreikusi dira.

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa 292

Aurreikuspenen arabera, zor jaulkipenik gabe, Eusko Jaurlaritzak % 10eko defizitarekin amaituko luke urtea. Baina zorraren jaulkipenari esker, 2022. urtea % 6,4ko defizit txikiagoarekin itxiko da, zehazki. Hori gertatzen da, gero azalduko dugun moduan, Urkulluren gobernua zerga-erreformari uko egin diolako,

3.3. 2023ko aurrekontu proiektuaren analisisia

Berrito zorrera jotzen duen diru-sarreraren politika, soberakin handia dagoen arren

Eusko Jaurlaritzak argi utzi du bere jarrera diru-sarreraren politikari dagokionez. Ikusi ahal izan dugunez, 2020an, 2021ean eta 2022an nahiago izan zuen zorpetu erreforma fiskal bat egin baino. 2023ko aurrekontua ere ildo beretik doa, ez da diru-sarrerak handitzeko erreformarik planteatzen, eta berrito ere zorra jaulkitzera jotzen du diru-sarreraren zati handi bat lortzeko. Politika horrek, behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, aparteko kostua dakar diru-kutxa publikoentzat, zorrak sortzen dituen interesak ordaindu behar direlako.

Eusko Jaurlaritzaren 2023rako diru-sarreraren aurrekontua 13.990 milioi eurora igo da. Hau da, 2022ko itxiera-aurreikuspena baino 1.223 milioi gehiago, edo termino erlatiboetan % 9,6ko igoera. Ekarpenik handiena Foru Aldundietatik etorriko da, zehazki % 85,1, kopuru nominaletan 11.901 milioi euro. Ekarpen horiek % 3,1 igo dira 2022aren aldean, ogasunen diru-bilketaren igoeragatik. Bigarren atalean adierazi dugun bezala (likidazioaren balorazioa), 2021eko abenduaren 31n erabilgarri zegoen diruzaintzako gerakinean 1.877 milioi euro zeuden, eta 355 milioi baino ez dira hartzen 2023ko aurrekontuetan sartzeko, baliabide propioen atalean sartuta dagoena.

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisisa: zer dago propagandaren atzean?


9. or.

Zorraren jaulkipenak gora egin du berriro eta 1.197 milioi eurotan kokatu da. Hau da, diru-sarreraren aurrekontuaren % 8,4, 2022ko itxiera-aurreikuspenarekiko % 141eko igoera. Oraingo honetan, aurreko urteetako gauza bera errepikatu da. 2021ean eta 2022an espero zena baino askoz gehiago bildu da Aldundietatik eta beste erakundeen baliabideetatik, eta horrek zorraren jaulkipena murriztea ekarri du.

Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak, 2022 eta 2023 urteen arteko alderaketa (milioi eurotan)

	2022 (itxiera aurr.)	2023 (proiektua)	Aldakuntza
Erakundeen baliabideak eta konpromisoak	12.011	12.309	+299 (+%2,5)
Foru Aldundiak	11.547	11.901	+354 (+%3,1)
Finantza-harremanak Espainiako sektore publikoarekin	280	316	+36 (+%12,6)
Europar Batasunarekiko finantza-harremanak	182	93	-89 (-%49,2)
Bestelakoak (baliabide prop.)	260	483	+223 (+%86,2)
Zor publikoa	497	1.197	+700 (+%141,1)
GUZTIRA BEM gabe	12.767	13.990	+1.223 (+%9,6)

Eusko Jaurlaritzaren sarrerak 2023an



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektua 2023

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismitik datozen partidei dagokionez, diru-sarrerak murriztu egingo dira. 2022 urtearekin alderatuta, aurrekusten denaren laurden batera murrizten dira, 2022ko itxiera aurreikuspenak 391 milioi euro zenbatzen ditu eta 2023ko aurrekontu-proiektuak (lehen aldiz biltzen ditu funts horiek diru-sarreraren atalean) 104 milioiko guztizko zenbatekoa aipatzen du. Zifra horri gehitu beharko litzaioke 2022an erabili gabeko funts-gerakin bat, 156 milioikoa, horrela 260 milioi izango dira guztira.

	2022 (itxiera aurr.)	2023 (proiektua)	Aldakuntza
Berreskuratze eta Erresilientzia Mek.	391	104	-73%
BEM gerakina	0	156	

Ez da historiako aurrekonturik hedakorrena

2023ko aurrekontu proiektua inoizko hedakorrena bezala iragarri da. 14.251 milioi eurokoa guztira, hau da, 322 milioi euro inguruko igoera (+%2,3) 2022ko itxiera aurreikuspenarekin alderatuz gero. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismitik datozen funtsak (260 milioi guztira) kenduz, guztira 13.991 milioi euroko aurrekontua geratzen da.

Gainera, bi partida deskontatu behar dira Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu operatiboa ezagutzeko, hau da, benetako ahalmen ekonomikoa:

- Alde batetik, zorra ordaintzeko partida (990 milioi euro).
- Bestetik, obrak aurreratzeari dagozkionak, horien gastua etorkizunean Espainiako Gobernuak bere gain hartuko duena (guztira 135 milioi AHTrako eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbiderako).

Partida horiek kenduta, Jaurlaritzak 12.865 milioi euroko aurrekontu operatiboa izango du bere sailletarako, 2022ko itxierako aurrekontua baino 155 milioi gehiago, hau da, % 1,2ko gehikuntza. Garrantzitsua da kopuru horiek ezagutzea, Eusko Jaurlaritzak % 8,7ko hazkundeaz hitz egiten baitu. Hala ere, alderaketa hori 2022. eta 2023. urteetako aurrekontuei buruzkoa da, eta ez da kontuan hartzen horien exekuzioa. Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, gauza bat da auresuposatzen dena, eta beste bat oso desberdina gauzatzen dena.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspen itxiera eta aurrekontu-proiektua (milioi eurotan)

	2022 (itxiera aurr.)	2023 (proiektua)	Aldakuntza
Aurrekontu osoa	13.929	14.251	322 (+%2,3)
(-) BEM	292	260	
Guztira BEM gabe	13.636	13.991	354 (+%2,6)
(-) AHT	48	135	
(-) Zor publikoa	878	989	
(=) Aurrekontua AHT eta zor publiko gabe	12.711	12.865	155 (+%1,2)


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2023ko aurrekontu proiektua

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

11. or.

Aurrekontuak historiako hedakorrenak direla dioen mitoa desmuntatzeko beste modu bat ekonomian duten pisuarekin alderatzea da. Logikoa da aurrekontuak urteek aurrera egin ahala handitzea, BPGa ere handitu ahala. Aurrekontu bat benetan hedakorra izan dadin, gastu publikoaren eta BPGaren arteko proportzioa handitu egin beharko litzateke. Hurrengo grafikoa ikus dezakegun bezala, hori ez da horrela; 2023ko aurrekontuaren pisua (BPGaren % 14,4) 2021eko (% 15,2) eta 2022ko itxiera-aurreikuspena (% 15,3) baino txikiagoa da, eta 2009ko mailaren azpitik ere badago (% 15,6).

Aurrekontuaren pisuaren bilakaera BPGarekiko (%)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda 2023eko aurrekontu-proiektuko eta Eustateko datuekin

Halaber, behin eta berriz esaten da aurrekontuaren % 75 gastu sozialera bideratuko dela. Azaldu beharra dago Eusko Jaurlaritzaren eskumen gehienak horretara bideratuta daudela, gizarte-gastura, hain zuzen ere. Horregatik, normala da aurrekontuaren zatirik handiena osasungintzara, hezkuntzara, gizarte-prestazioetara eta abarretara bideratzea.

Aurrekontuak aurkezteko orduan Eusko Jaurlaritzak duen beste ahalegin nagusietako bat inbertsioen pisua goraipatzea da. 1.800 milioi euro baino gehiago bideratu nahi dira proiektuaren arlo guztietako inbertsio publikora, hau da, aurreko urtean baino % 15 gehiago. I+Gko inbertsioa nabarmentzen da batez ere, 658 milioirekin. Hala ere, gauza bat da aurreikusten dena eta beste bat gauzatzen dena. Izan ere, 2022ko urrian, 2022ko aurrekontuan aurreikusitako inbertsio errealean % 23 bakarrik gauzatu ziren. Gauza bera gertatu zen 2021ean, urte horretako abenduan inbertsioen % 40 baino gehiago ez baitziren gauzatu. Inbertsioetan 1.800 milioi horiek exekutatzaren alai propaganda hutsa den ikusi beharko da. Gainera, kontuan izan behar da inbertsio horien zati bat AHTri dagozkionak direla.

Pertsonal-gastuaren gaia ere kontuan hartu behar da. Eusko Jaurlaritzaren proposamena Estatuko Gobernuak aurkeztutakoaren berdina da. Beste behin ere, Eusko Jaurlaritzak uko egiten dio Espainiako Gobernuaren Ordezkariordeztza gisa jarduteko arlo horretan duen eskumenari, eta 2023rako % 2,5eko soldata-igoera proposatzen du. Proposamen hori KPIaren itxiera % 8 inguruan egongo denean egiten da. Horrek erosteko ahalmenaren % 5tik gorako galera ekarriko luke 2023rako, eta gehitu behar zaio gaur egun galduta dagoen % 16. Azken hamarkadan metatutako galera % 20tik gorakoa izango litzateke.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen igoerak eragin zuzena du gero hitzarmen kolektiboak negoziatzeko orduan, eta langile guztiei eragiten die.

Osasun-gastuak behera egin du 2022ko itxieraren aldean


12. or.

Osasun Sailak 4.627 milioi euroko aurrekontua izango du 2023rako (BEMaren 12 milioiak kenduta). Hau da, 2022. urtea ixteko aurreikuspena baino 233 milioi euro gutxiago. Azpiazuk arlo horretan % 6ko igoeraz hitz egiten duenean, aurreko urteko aurrekontuarekin alderatzen du. Baina 2022an gastatzea aurreikusita dagoenarekin alderatuz gero, Osasuneko aurrekontua % 4,8 murriztu dela ikusiko dugu.

Osakidetzak lehendik ere bazeuden egiturazko arazoak pairatzen jarraitzen du, pandemiaren ondoren larriagotu direnak. Lehen mailako arretaren egoera oso kezagarria da eta erabiltzaileek ez dute kalitatezko arretarik jasotzen; telefono-hitzorduei lehentasuna ematen diete aurreko arretaren gainetik; edo itxaron-zerrenda luzeak izaten dituzte arreta jaso ahal izateko. Horri gehitu behar zaizkio Osakidetzan aldi baterako kontratuak dituzten langileen ratio handia (% 50 baino gehiago), lan-karga handitzea langileak murrizten ari diren bitartean edo zerbitzuaren kalitatea kaltetzen duten kontratu mistoen eskaintza. Osakidetzaren esanetan, erakunde publikoak dituen arazo guztien jatorria maila guztietako profesionalen falta da: bereziki fakultatiboak, baina baita erizainak ere. ELAk urteak daramatza benetako arazoa eskaintzen diren lan-baldintzak direla salatzen.

Baliabide falta hori agerikoa da Osasun Sailak BPGaren gainean duen pisua aztertzean. Osasun-gastua BPGaren % 5,19 izatea espero da, 2022ko aurrekontua eta itxiera-aurreikuspena baino balio txikiagoa (% 5,32 eta % 5,63, hurrenez hurren). Osasunaren egitura-arazoak gorabehera, osasun-arloko gastu publikoaren ahalegina duela 10 urtekoaren oso antzekoa da, % 5aren gainetik

Gastua osasunean (milioi eurotan) eta BPGarekiko pisua



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2023ko aurrekontu-proiektua eta Eustat


Igoera minimoa hezkuntzan

Hezkuntza Saila bigarrena da garrantziari dagokionez, 2023rako 3.407 milioi euroko guztizko zenbatekoarekin (BEMaren 70 milioi euro kenduta), 2022ko itxiera-aurreikuspena baino 32 milioi gehiago. Hori kontuan hartuta, aurrekontuaren igoera % 1ekoa baino ez litzateke izango.

Zuzkidurak gora egin duen arren, BPGarekiko pisuak behera egin du aurreko urtearekiko. Urte honen amaieran hezkuntzaren pisua aberastasunaren % 3,98 izatea aurreikusten da, baina ehuneko hori % 3,82ra jaisten da 2023an. Urteen arteko aldaketa horiek, ordea, ez dute azken hamarkadako joera aldatzen. Hezkuntza Sailak BPGaren gainean izan duen pisua % 4 inguruan edo behetik kokatu da beti, eta Europako beste herrialde batzuekin alderatuta oso azpitik daude.

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

Gastua Hezkuntzan (milioi eurotan) eta BPGarekiko pisua



13. or.


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2023ko aurrekontu-proiektua eta Eustat

Etxebizitza aurrekontu ez-nahikoa

2023. urterako Etxebizitzara bideratutako aurrekontuak 184 milioi euroko zuzkidura du, 2022. urtea itxeko aurreikuspenaren ia kopuru bera. ELArentzat, etxebizitzaren arazoa gai zentrala da, baina euskal erakundeek ez diote merezi duen garrantzia ematen.

Biztanleriaren zati handi batek etxebizitza duin bat eskuratzeko premia larria duen bitartean, 2023rako aurrekontuak zuzkidura txikia izaten jarraitzen du, BPGarekiko duen pisuarekin ikusten dugun moduan. Etxebizitza bezalako eskubide unibertsal batek ia ez du lekurik proiektuan.

Etxebizitzarako aurrekontu zuzkidura (milioi euro) eta BPGarekiko pisua



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2023ko Aurrekontu Proiektua

Beste behin ere, murrizketak gizarte-prestazioetan

2023. urterako Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) 312 milioi euroko zuzkidura aurreikusten da, aurreko urtean baino 33 milioi gutxiago. Murrizketa hori Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara aurrekontuan sartzeagatik gertatu da, 173 milioiko zenbatekoarekin.

Azken aste hauetan akordioa lortu dute Eusko Jaurlaritzak eta Elkarrekin Podemosek DSBEa erreformatzeko, eta DSBEa % 10 igotzea nahi dute. Erreforma gauzatu arte, aurrekontuek % 8,5eko eguneratzea proposatu dute. Hala ere, aurreko urteetan gertatu zen bezala, 2008an onartutako Legea urratzen jarraitzen da; horren arabera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) % 88koa izan behar da, eta % 100ekoa pentsiodunen kasuan.

Aurrekontu-proiektuan aurreikusitako igoerarekin, DSBE orokorraren zenbatekoa 800 eurotik beherakoa izango litzateke, 2008ko Legeari legezkiokoen 1.026,7 euroen ordez. Lege hori ez da aldatu, eta, beraz, urtero Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak erabiltzen dira DSBEaren zenbatekoan murrizketa handia aplikatzen jarraitzeko. Diru-sarrerak bermatzeko errentan ia 230 euroko murrizketa egongo litzateke. Pentsiodunen kasuan, DSBEaren zenbatekoa 905 eurokoa izango litzateke, eta 2008ko Legearen arabera, berriz, 1.166,7 euro inguru, hau da, 275 euro gehiago egokituko litzazkieke. DSBEren zuzkidura murriztu beharrean, BGD sartzeagatik, dirua inbertitu beharko litzateke prestazioaren zenbatekoa handitzeko 2008ko legean ezartzen den bezala.

DSBEren zenbatekoa 2023. Bakarrik bizi diren pertsonak

	Aurrekontua 2023	2008ko legea	Murrizketa
DSBE orokorra	799	1.026,7	-227,7 euro
DSBE pentsionistak	905,4	1.166,7	-261,3 euro

Alokairurako prestazio ekonomikoei dagokienez, iaz 25 euro igo ziren, 10 urtez izoztuta egon ondoren. 2023rako beste 25 euroko igoera bat aurreikusten da hilean(gutxi gorabehera KPlaren igoerari dagokiona), bai Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarrian (EPO), bai Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoan (EPE), eta 300 eurokoa izango da. Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria etxebizitza-gastuak ordaintzeko laguntza behar duten DSBEaren hartzaileei ordaintzen zaie, eta EPEa, berriz, alokairu sozialeko erregimeneko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea duten baina, etxebizitza sozialen eskaintza txikia dela-eta, prestazio hori jasotzen duten pertsonen, 2015eko Etxebizitzaren Legean jasotzen denaren arabera. Zenbatekoa handitu arren, zenbateko hori 2010ean EPOagatik ordaintzen ziren hileko 320 euroen azpitik dago, azken 12 urteetan prezioen igoera handia izan den arren.

Gaztelagun prestazioari dagokionez, gazteen alokairurako laguntzaren zenbatekoa aurrekoen maila berekoa izango da. Hala ere, nahiz eta gora egin duen, prestazio horien zenbatekoa ez da nahikoa merkatu libreko alokairu bat ordaintzeko (EAEko batez bestekoa 1.000 eurotik gorakoa da), ezta alokairu sozialeko erregimeneko etxebizitza bat ordaintzeko ere, batez besteko errenta 350 eurotik gorakoa baita.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL) aurrekontu-zuzkidurari dagokionez, iaz bezala mantendu da, 41,5 milioi euroekin. Gogoratu behar da laguntza horrek ez dakarrela eskubiderik, eta aurrekontu-zuzkidura agortzen denean, hartzaileek prestazio hori jasotzeari uzten diotela.

Zorrera bideratutako ordainketaren handitzea eta gehienekotan jarraitzen duen zor bizia

990 milioi euroko aurrekontua ezarri da 2023an zorra ordaintzeko, hau da, aurrekontuaren %7,1a (BEM eta AHTrik gabe). Horrela, zorraren ordainketa 111 milioi haziko da 2022ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta. Horrek % 12,7ko igoera dakar, eta, beraz, gehien hazi den partidetako bat da. Osasunean, aipatu bezala, partida murriztu da eta hezkuntzan % 3 baino ez da handitu.


2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

Zenbateko horretatik, 778 milioi zorraren amortizazioari dagozkio, eta 212 milioi, berriz, interesen ordaintetari.

Ikus daitekeenez, zorra ordaintzera bideratutako igoera gorabehera, zor bizia igo egingo da 2023an. 2022an, 246 milioi murriztea espero da, 10.348 milioira iritsiz, hau da, BPGaren % 12,2ra. Hala ere, 2023rako espero da zor bizia 10.768 milioi euroraino handitzea, hau da, 419 milioiko igoera, nahiz eta egia den zor/BPG ratioa mantendu egingo dela, BPG nominalaren igoerari esker.

15. or.

Zor biziaren bilakaera balio absolutuetan (milioi eurotan) eta zorra/BPG ratioa



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda Eusko Jaurlaritzaren 2023ko aurrekontu proiektuko datuekin

4. NAFARROA

2023ko Nafarroako aurrekontua egungo Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Podemos) aurkeztzen duen laugarrena da. Legegintzaldi honetan onartutako aurrekontuek ez dute aldaketa sozialik ekarri Nafarroan, eta gastu sozialean austeritatea ezartzen duen aurrekontu politikaren ildoari eutsi diote.

4.1. 2023ko aurrekontu politikaren analisia

Lehenik eta behin salatu behar da Nafarroako Gobernuak 2023ko Nafarroako Aurrekontuen Aurreproiektua egin duela inolako parte hartze sozialik gabe. Etsigarria da gobernu honek entzuteko duen interes falta, eta are gutxiago parte hartze sozial eta sindikal zabala bermatzea aurrekontu eta zerga politika finkatzeko.

Diru sarreren politika eskasa

Nafarroako Gobernuak argi utzi du bere jarrera diru sarreren politikari dagokionez. Ikusi ahal izan dugu aurreko urteetan nahiago izan duela zorpetu kapitalari zerga karga handituko dion zerga erreforma egin baino. 2023ko aurrekontua ere ildo beretik doa, ez da diru sarrerak handitzeko erreformarik planteatzen, eta berriro ere zorra jaulkitzera jotzen du diru sarreren zati bat lortzeko. Politika hori, behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala, aparteko prezioa da diru kutxa publikoentzat, zorrak sortzen dituen interesak ordaintzeagatik.

Nafarroako Gobernuaren 2023ko diru sarreraren aurrekontua 5.748,9 milioi euroraino igo da. Hala ere, aurrekontuak BEMarik gabe aztertzearen logikari jarraituz, guztizko zenbatekoa 5.577,3 milioira jaitsiko litzateke. Alde batetik, 2023ko BEMen aurrekontua kenduko dugu (65,7 milioi), eta, bestetik, aurreko urteetako soberakina (105,9 milioi). Hala, 2023rako diru sarreraren aurrekontua 115 milioi handiagoa izango da, 2022ko itxiera aurreikuspena baino, hau da, % 2,1 baino ez da igoko.


2023rako aurreikusitako sarrera eta BEM (milioi eurotan)

	2023
Diru-sarrerak guztira	5.748,9
(-) BEM	65,7
(-) BEM gerakina	105,9
Guztira BEM gabe	5.577,3

Iturria: Nafarroako Gobernua

Ekarpenik handiena zerga sarreretatik etorriko da, sarrera guztien % 81,3 izango baitira (zuzeneko zergak % 41,4 eta zeharkako zergak % 39,9). Ekarpener horiek gora egin dute 2022tik. Ogasunaren diru bilketak gora egin duelako. Pasibo finantzarioak sarreraren % 11,5 izango dira. Moneta nazionalen jasotako maileguak eta zorraren jaulkipena guztira 640 milioi eurora iritsi dira, 71 milioiko jaitsiera 2022ko itxierarekin alderatuta. Diru sarreraren beste partidak % 7,2 jaitsi dira, eta transferentzia arruntek (157 milioi) egingo dute ekarpen handiena 2023an.

2023rako diru-sarreraren aurrekontuaren banaketa



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin a Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

2023ko EAeko eta Nafarroako aurrekontuen analisisa: zer dago propagandaren atzean?

17. or.

% 1,6 soilik hazten den aurrekontu eskasa

2023rako Nafarroako Gobernuak egindako Aurrekontu Proiektuak 5.748,9 milioi euroko gastua aurreikusten du. Kopuru horrek barne hartzen ditu lehen aipatutako Berreskuratze eta Erresili-entzia Mekanismoaren (BEM) 185,6 milioi euro; beraz, zenbateko hori kenduta, aurrekontua 5.563,3 milioi eurokoa da.

2023rako proiektatutako aurrekontua eta BEM (milioi eurotan)

	2023
Guztira	5.748,9
(-) BEM	185,6
Guztira BEM gabe	5.563,3

Iturria: Nafarroako Gobernua

Horrek esan nahi du 2023an 2022an baino 89,8 milioi euro gehiago gastatzea soilik aurreikusten dela, hau da, % 1,6 gehiago.

Nafarroako Gobernuaren gastu publikoa (milioi eurotan) 2010-2023 (2022 behin betiko aurreikuspena III. hiru hilekorako eta 2023 aurrekontu proiektua)

2010	2015	2020	2022	2023
3.979,0	3.954,8	4.587,0	5.473,6	5.563,3

Iturria: Nafarroako Gobernua eta Nastat

Zorrek eta itzalpeko bidesariek aurrekontuko 10 eurotik 1 jaten dute

Baina adierazitako zifra (5.563,3 milioi) ez da gizarte premiak asetzeko erabiliko den aurrekontua, zenbateko hori itzaleko zorrak eta bidesariak oztopatzen baitute. 2023an Nafarroako Gobernuak 516,8 milioi euro (BPGaren % 2,1) ordainduko ditu zor publikoan. Hau da, aurrekontu osoaren % 9 zor publikoa eta horren interesak eta gastuak ordaintzeko izango da. 2008tik 2023ra 5.176,9 milioi euro ordainduko dira zor publikoan.

Hala ere, Nafarroaren zor bizia 3.282 milioi eurokoa izan da 2022ko bigarren hiru hilekoan. 2008tik, Nafarroako zor bizia 868 milioi eurotik 3.282 milioi eurora igaro da, baina zorraren zenbatekorik handiena 2021eko lehen hiru hilekoan erregistratu zen, 3.751 milioi euroekin.

Horri itzaleko bidesaria gehitu behar zaio, zor publikoarekin antzekotasun handia duen kanona baita. Obra handiak ordaintzeko erabili den mekanismo bat da (Nafarroako Ubidea eta haren 1. fasearen handitzea eta A-21 eta A12 autobideak), obra baten eraikuntza eta finantzaketa enpresa pribatu batek egin eta Gobernuak ordain dezan. Horrela, administrazioak epe laburreko zorpet-zea saihesten du eta kontuak makillatzen ditu, nahiz eta epe luzera gastua askoz handiagoa izan.

2023rako Aurrekontu Proiektuak 111,5 milioi euroko itzaleko bidesaria ordaintzea aurreikusten du, 2022ko gastu kontsolidatua baino 10,2 milioi gehiago. 2008tik 1.156,9 milioi euro gastatuko dira soberako bidesarietan. Gainera, ordaindu beharreko kopuruak gora egiten jarraitzen du urtez urte, Kontuen Ganberak ohartarazi ohi duen bezala.

Zor publikoa eta itzaleko bidesaria batuz gero, 2023an 628,3 milioi euro gastatuko dira, aurrekontuaren % 10,9.

Benetan kezagarria da zor publikoaren bilakaera. 2008tik (itzaleko bidesariak hasi zirenetik) zorraren eta itzaleko bidesarien ordainketa % 801,4 handitu da, eta aurrekontuaren % 1,6 izatetik 2023an % 11,2 izatera igaro da. Legegintzaldi honetan 431,3 milioi ordaintzetik 628,3 milioi euro ordaintzera igaro da, % 45,7 igo da.

Azken batean, zor publikoaren gastua eta itzaleko bidesariak deskontatzen baditugu Nafarroako Gobernuak gizartearen beharrei aurre egiteko darabilen aurrekontua txikiagoa da. 2023an, Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen benetako gastua (zorraren ordainketa eta itzaleko bidesaria kenduta) 4.935 milioi eurokoa da.

Zor publikoko gastu osoa eta itzalpeko bidesaria (milioi eurotan) 2008-2023

	2008	2010	2015	2020	2022	2023
Zor publikoa	28,2	144,1	414,3	351,9	520,7	516,8
Itzalpeko bidesaria	41,6	43,9	68,2	90,5	101,3	111,5
Guztira	69,7	188,1	482,5	442,4	622,0	628,3
Gastua / aurrekontua	4.402,5	4.301,3	3.965,0	4.587,0	5.473,6	5.563,3
Gastua zorrik eta badesari gabe	4.332,8	4.113,2	3.482,5	4.144,6	4.851,6	4.935,0

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

KPIaren eta BPGaren azpitik hazten den aurrekontua

Aurrekontuak BPGan duen partaidetzari dagokionez, 2023rako aurreikusitako gastua % 23,4koa da, 2022an baino puntu bat txikiagoa. Ekitaldi honetan ez bezala, aurrekontuak BPGarekiko duen partaidetza handitu egin da azken urteetan, ez horrenbeste aurrekontuak hazi direlako, BPGa murriztu delako baizik.

2023ko aurrekontuan 2022arekiko aurreikusten den bilakaera (aurrekontuaren % 1,6ko igoera eurotan, eta BPGarekiko puntu bateko murrizketa) Nafarroako Gobernuak ekonomiaren bilakae-rari buruz egiten duen aurreikuspenarekin kontrajartzen da. Aipatu ditugu Nafarroako Gobernuaren BPGaren aurreikuspenak (% 4 eta % 1,4), eta 2022ko KPIarenak (urteko batez bestekoa), % 8,9, eta 2023koak, % 4,8.

2023ko EAeko eta Nafarroako aurrekontuen analisisa: zer dago propagandaren atzean?

19. or.

Nafarroako Gobernuaren gastu publikoa (milioi eurotan eta BPGaren % tan). 2022-2023 (2022 behin betiko aurreikuspena III. hiruhilekorako eta 2023 aurrekontu-proiekturako)

	2022	2023
Aurrekontuaren partaidetza BPGan	%24,4	%23,4
KPlaren hazkundera	%8,9	%4,8
BPGaren hazkunderaren aurreikuspena	%4,0	%1,4

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Estatuari egindako ekarpena: opakutasuna eta zor publiko handiagoa

Puntu honetan, Estatuari egingo zaion ekarpena aipatu behar da, 2023an 635,5 milioi eurokoa izango dela aurreikusten baita.

Estatuari egiten zaion ekarpena 5 urtean behin egiten diren negoziazioen arabera kalkulatu da. Ordainketa guztiz opakua da, inon ez baita zehazten benetan zer ordaintzen ari den eta nola kalkulatu den. Gainera, kontuan izan behar da ekarpen horretan Estatuaren zor publikoaren zati bat ere ordaintzen ari dela, eta, beraz, nafarren zor publikoaren gastua are handiagoa da lehen aipatutako 628,3 milioiak baino.

Ondorioz, zor publikoak, itzaleko bidesariak eta Estatuari egin beharreko ekarpenak erabat baldintzatzen dute Nafarroako aurrekontua.

Osasunean eta Hezkuntzan inbertitutakoaren pisua behera

Osasun Departamentuak 1.324,8 milioi euroko aurrekontua izango du 2023an, aurrekontu proiektuaren arabera, 2022ko behin betiko kreditua baino 38,6 milioi gehiago (% 3). Aurrekontu hori 2023rako aurreikusitako BPGaren % 5,6 da, 2022an baino 0,1 puntu gutxiago.

Osasun gastua (milioi eurotan eta BPGaren %) 2010-2023

	2010	2015	2020	2022	2023
Miliodo euro	1.036,1	963,8	1.221,7	1.286,2	1.324,8
% / BPG	%5,6	%5,1	%6,0	%5,7	%5,6

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Osasun Departamentuaren aurrekontua KPIrako eta BPGrako aurreikusitako hazkundera baino askoz txikiagoa izango da. Eta hau gertatzen da itxaron zerrendak oso handiak direnean. Inbertsiorik ezak baliabide material gutxiago eta langile gutxiago izatea eragiten du, eta, plantilla txikiak, zahartuta eta behin behinekotasun onartezinarekin markatutako lan baldintzak izatea. Pandemiaren aurreko egiturazko arazoak dira hauek. Horren ondorioz, itxaron zerrendak 2019ko abuztuan laguntza espezializatuan egindako lehen kontsultarako 49 eguneko batez besteko itxaronalditik 2022ko abuztuko 76 eguneko batez besteko itxaronaldira igaro dira. Itxaroteko dauden pertsonen kopurua 40.402tik 61.105era igaro da aldi horretan.

Osasunbideko egoera onartezina da eta, horren ondorioz, osasun pribatuak lekua irabazi du Nafarroan. Osasun Departamentuaren aurrekontua % 3 hazi da, eta osasun pribatuaren prestazio eta itunen gastua, berriz, % 8. Horrekin batera, aipatu behar da azken 5 urteetan 20.000 pertsona gehiagok dutela mediku aseguru pribatu bat Nafarroan.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua 804,5 milioi eurokoa izango da 2023an. Kopuru horri unibertsitateei dagokien aurrekontua gehitu behar zaio, legegintzaldi honetan beste sail baten esku geratu baita (Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitalarena). Beraz, konparazio homogeneo bat egiteko, beharrezkoa da Hezkuntza Departamenturako aurreikusitako gastuari unibertsitateei dagokien gastua gehitzea (104,7 milioi euro); beraz, hezkuntzako gastua 909,2 milioi eurokoa izango da 2023an, 2022ko behin betiko kreditua baino 25,7 milioi euro gehiago, hau da, % 2,9 gehiago.

Gastu hori BPGaren % 3,9 da, 2022ko behin betiko kreditua baino 0,1 puntu gutxiago. Hezkuntzako gastuaren partaidetza BPGarekiko 0,2 puntu handitu da 2010etik, urte horretan murrizketa handiak egin baitziren.

Hezkuntzako gastua (milioi eurotan eta BPGaren %) 2010-2023

	2010	2015	2020	2022	2023
Milioi euro	668,1	584,5	771,1	883,5	909,2
% / BPG	%3,6	%3,1	%3,8	%3,9	%3,8

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Errenta bermatua % 50 baino gehiago handitu beharko litzateke LGSren erreferentzia berreskuratzeko

Errenta Bermatuan egindako inbertsioak 88,4 milioi euro gastatzea aurreikusten du 2023an, 2022ko aurrekontu bateratuak baino 8,5 milioi euro gutxiago. Bilakaerak erakusten du 2010etik gizarte prestazio horretara bideratutako gastua BPGaren % 0,12tik % 0,37ra igaro dela, nahiz eta 2022tik 2023ra % 0,42tik jaitsi den.

Bermatutako Errentaren gastua (milioi euro eta BPGaren %) 2010-2023

	2010	2015	2020	2022	2023
Milioi euro	30,8	65,8	108,5	96,9	88,4
% / BPG	%0,12	%0,28	%0,53	%0,42	%0,37

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Hala eta guztiz ere, prestazio horrek dakarren murrizketa gogoratu behar da. Aurreko prestazioa (Gizarteratzeko Errenta) ordezkatzeko Errenta Bermatua sortu zenean, LGSri buruzko erreferentzia kendu zen prestazioa kalkulatzeko oinarritzko zenbateko gisa, eta 600 euroko zenbatekoa ezarri zen horren ordeaz.

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisisa: zer dago propagandaren atzean?

21. or.

Horrek esan nahi du azken urteetan LGSk izan duen igoerarekin Errenta Bermatuak gero eta pisu txikiagoa duela. 2022an oinarritzko zenbateko eguneratua 658,4 eurokoa izan da, eta LGS, berriz, 1.000 eurokoa. 2023rako, Bermatutako Errenta KPlaren arabera igotzea aurreikusten da, eta LGSa 1.100 eurora igo daiteke (dokumentu hau egiteko azken berrien arabera). Edonola ere, LGStik bereizi zenetik Errenta Bermatuaren botere galera onartezina da, % 51,9 handitu beharko litzateke LGSa berdintzeko. Izan ere, Errenta Bermatua arautzen duen Foru Legea onartu eta 8 urtera, pertsona bakarreko familia unitateak Foru Legea onartu zeneko LGSaren antzeko kopurua kobratzen ari dira.

Errenta Bermatuaren (pertsona baten familia unitatea) eta LGSaren oinarritzko zenbatekoaren bilakaera eurotan. 2016-2022

	2016	2022
Errenta Bermatua	600	658,4
LGS	655,2	1.000

Iturria: Nafarroako Gobernua eta EAO

Lan osasuna lehenetsua izan gabe jarraitzen du Nafarroako Gobernuarentzat

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (ISPLN) aurrekontua 45.000 eurotan murriztu da (2022ko behin betiko aurreikuspena 2,7 milioikoa da, eta 2023rako 2,64 milioi euro aurreikusi dira). Izan ere, amiantoa kentzeko planari esleitutako partida kendu egin da.

Beharrezkoa da lan osasuneko politika publikoetara bideratutako aurrekontu partidak handitzea eta administrazioaren esparru bakoitzerako gutxieneko esleipen bat ezartzea, bai eta ISPLNko eta Lan Ikuskaritzako langileak bikoiztea ere, Europako batez besteko ratioarekin berdintzeko.

Garraio publikoaren prezioa jaisteko inbertsiorik ez

Espainiako Gobernuak irailean onartu zuen bere titulartasuneko garraiobide jakin batzuetan (besteak beste, aldiriko trenetan) egindako ohiko bidaiak doakoak izatea, eta gainerako administrazioek bere eskumeneko garraio publikoan onartutako beherapenak % 30 finantzatzea. Era berean, beherapen hori autonomia erkidegoek gutxienez % 50era eramatea iradoki zuen. Neurri hori, hasiera batean abendura artekoa zen, baina 2023 urte osoan zehar luzatu da.

Nafarroako Gobernuak % 30eko beherapena soilik onartzea erabaki zuen, hau da, Espainiako Gobernuaren kontura dagoena, beste ekarpen propiorik gabe, eta 2023an ere ez da beherapen hori handituko. Aurrekontu Proiektuak ez du aurreikusten beherapen hori handitzea, nahiz eta erakusten ari den garraio publikoan egiten diren bidaien kopurua asko handitzen ari dela (eta askoz gehiago doakoetan) eta ibilgailu pribatuaren erabilera nabarmen jaisten ari dela.

Inbertsio eskasa etxebizitzan

2023rako Etxebizitzara bideratutako aurrekontuak 69,5 milioi euroko zuzkidura du, 2022ko behin betiko kreditua baino 4,2 milioi gutxiago (73,7 milioi euro). ELAren ustez, etxebizitzaren arazoa funtsezkoa da, baina erakundeek ez diote merezi duen garrantzia ematen.

Biztanleriaren zati handi batek etxebizitza duina eskuratzeko premia larria duenez, 2023rako aurrekontuak zuzkidura txikia izaten jarraitzen du, etxebizitzak BPGaren gainean duen pisuarekin ikus dezakegun bezala. Etxebizitza bezalako eskubide unibertsal batek ia ez du lekurik proiektuan.

Etxebizitzarako aurrekontu zuzkidura (milioi eurotan)

	2022 (behin-betiko kreditua)	2023 (aurrekontua)
Miloi euro	73,7	69,5
Etxebizitza pisua / BPG	%0,28	%0,29

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egin a Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

UGT, CCOO eta CEN finantzatzeko dituen aurrekontua

2023ko Aurrekontu Proiektuak 2021-2024 Enplegu Planarekin zerikusia duten hainbat partida biltzen ditu, UGT, CCOO eta CENentzat diru gehiago ekarriko dutenak. Hiru erakunde horien aurrekontuen bidezko finantzaketa ez zen gertatzen UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik. 2022ko aurrekontuak elkarrizketa sozialaren finantziario hori berreskuratu zuen, eta 2023an berriro errepikatuko da.

2023ko Aurrekontu Proiektuarekin batera doan Memoriaren arabera, Nafarroako Gobernuak 2023an Enplegu Planeko hainbat ekintza eta neurri aurreikusten ditu 182 milioi euro inguruko balioarekin. Gogoratu behar da Plan honen sinatzaileek propaganda egin dutela Plana indarrean egongo den 4 urteetan 700 milioi euro baino gehiago kudeatuko dituen Plana dela esanez.

Enplegu Planean sartzen diren aurrekontu partida ugariaren artean, gehienak Administrazio Publikoak lehendik egiten zituen eta orain Enplegu Planean sartzen diren politiken kudeaketari dagozkio, eta sinatzaileek kudeaketa publikoko botere kuotak hartzen dituzte. Hau da, plan honek politika publikoak pribatizatzea dakar, hala nola genero ekitatea, lan osasuna, enplegu politika aktiboak edo enpresei ematen zaizkien dirulaguntza jakin batzuk.

Horrez gain, UGT, CCOO eta CEN finantzatzeko beste partida batzuk ere badaude. Horixe gertatzen da, adibidez, Prebentzioko Lurralde Ordezkariekin (400.000 euro). Figura hori ezabatu egin zen hitzarmenen eskandaluarekin, eta, horren ondorioz, 4 milioi euro baino gehiago esleitu zitzaizkien UGT, CCOO eta CENi 2008tik, lan istripuak eta lanbide gaixotasunak murrizteko eraginkortasunari buruzko adierazlerik gabe.

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

Aurrekontuen aurreproiektuan sartutako UGT, CCOO eta CEN finantzatzeko partidak

Partida	€
Nafarroako enplegu plan berriaren kudeaketa	18.000
Enpresa osasungarriaren bi urtez behingo kongresua	10
PE Enplegu Planetik eratorritako ekintzak	100.000
Berdintasun planak ezartzeko prozesuan hobekuntzak behatzeko eta proposatzeko ekintzak	6.000
PE berdintasun-planen arloko araudia betetzeko sentsibilizazio-kanpainak	10
Belaunaldi txandakako laguntzak autonomoei (PE)	100.000
LAPeko lankidetzako proiektuak: PEko lurralde ordezkaria	400.000
Berdintasun eta Kontziliazio Proiektuak	250.000
Ekintza sindikala laneko arriskuen prebentzioan	400.000
Partaidetzako gizarte eta enpresa eragileen transferentzia	60.010
Guztira	1.334.030

Iturria: Nafarroako Gobernuak

4.2. EH Bildurekin egindako akordioak ez du Gobernuaren aurrekontu antisoziala baldintzatzen

Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Podemos) EH Bildurekin sinatutako akordioak 14,4 milioi euro bideratuko ditu EH Bilduk proposatutako partidak finantzatzeko. Baina akordio hori ez da 14,4 milioi euro horietara mugatzen, aurrekontu osoa onartzea dakar. Horrez gain, gastu handiagoa dakarten legerik ez onartzeko konpromisoa hartu dute, bai eta neurri fiskalak eta aurrekonturik esleitu gabeko beste akordio batzuk onartzekoa ere.

Akordioa hiru zati nagusitan egituratuta dago. Lehenengoak, aurrekarien irakurketa laburra egi-teaz gain, adostutako aurrekontu partidak zehazten ditu. Bigarrenean, zerga politikaren inguruko akordioa jasotzen da, eta hirugarrenean, gainerako konpromisoak.

Aurrekontu osoa onartzearen truke guztiaren % 0,26 besterik ez da baldintzatzen

Akordioaren hasieran, 2022an adostutako partidak eta zuzenketak, oro har, garaiz eta behar bezala gauzatu direla onartzen da. Halaber, gauzatu ez diren konpromisoetako batzuk zerrendatzen dira.

Baina lehen atal honetan akordioaren eduki ekonomikoa ere badago. Aurrekontu politikaren eginkizun nagusia gastua diseinatzea eta definitzea da, hau da, diru publikoa zertan gastatzen den erabakitzea. Akordio honek Nafarroako Gobernuaren esku uzten du aurrekontuaren % 99,74 erabakitzea. Bere eragina 14,4 milioi eurokoa da 5.563,3 milioiko aurrekontutik. Argi dago kopuru hain baxu batek ezin duela inolaz ere Gobernuaren aurrekontua sozial bihurtu. Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioak dokumentu honetako aurreko puntuetan adierazitako elementu guztiak onartzea dakar.

Hauek dira akordioak zehazten dituen 14,4 milioietatik diru gehien jasotzen duten Departamentuak: Osasun Departamentua (5 milioi euro, gehien bat langile gehiago kontratatzeko), Gizarte Eskubideen Departamentua (3,2 milioi) eta Hezkuntza Departamentua (2,5 milioi).

Osasun Departamentuaren kasuan, akordioak ez dakar aurrekontua handitzea, partiden arteko aldaketak baizik. Testuak zehazten duenez, 14,4 milioi euro horietatik 10 milioi gastu muga handitzeari dagozkio, eta gainerakoa Osasun Departamentuan partiden arteko mugimenduari. Partida guztiak sartuta zeuden Aurrekontuaren Aurreproiektuan, eta, beraz, ezin da jakin zer partida mugitu diren.

Nafarroako Gobernuaren fiskalitatea babesten duen akordioa

Akordioaren bigarren blokea zerga politikari buruzkoa da. Testuak dio ez dela akordio orokorrik lortu gobernuak Parlamentuari aurkeztu nahi dizkion aldaketa fiskalei buruz. Baina, baieztapen horretatik harago, egia esan, EH Bilduk konpromisoa hartu du neurri fiskal guztiak onartzeko, baita 2023rako Neurri Fiskalei buruzko Foru Legea onartzeko ere.

Azken batean, akordioa Nafarroako politika fiskal bidegabea eta eskasa mantentzeko da. UPN Gobernutik atera ondorengo bigarren legegintzaldia amaitzeaz dago, eta bere politika fiskalak indarrean jarraitzen du. EH Bilduren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lau aurrekontu akordioetako batek ere ez ditu arriskuan jarri Nafarroako elite ekonomikoa eta enpresariaren pribilegioak eta estatusa fiskalitatean.

ELArentzat oso albiste txarra da zerga erreforma bat egiteari uko egitea, zerga bilketarako gaitasuna nabarmen handituko duena, enpresek, kapitalak, ondareek eta errenta handienek gehiago ordaintzera bideratua. Gaur egun, Nafarroak fiskalitate eskasa du (EBko batez bestekoa baino 1.675 milioi euro gutxiago biltzen dira), bidegabea (zuzeneko zergen bidez biltzen diren 10 eurotik 7 laneko errentak dira) eta permisiboa enpresen eta enpresa errenten eta kapital errenten iruzur fiskalarekin. Duela zazpi urte baino gehiago atera zen UPN Nafarroako Jauregitik, eta fiskalitatea ia berdina da oraindik.

Aurrekontua defizitari esker egokitzen da, hau da, zorra handituz. Zor publikoa handitzearekin batera erreforma fiskalik egiten ez bada, murrizketak itzuliko dira. Diru bilketa handitzea Nafarroako Gobernuaren esku dago, horretarako borondate politikoa baino ez da behar.

Orokortasunez eta zehaztasunik gabeko elementuez betetako akordioa

Akordioak aurrekonturik esleitu gabeko konpromiso batzuk jasotzen ditu. Konpromiso horietako batzuk azterlanak, planak edo analisiak egitea dira, eta horiek egin arren, ez dute inolako aldaketarik edo hobekuntzarik ekarri beharrik. Testuan termino ugari daude, hala nola baloratuko da, eztabaida bat irekiko da, sustatuko da..., eta termino horiek ez dute inolako zehaztasunik.

Errealitatearekin zerikusirik ez duten baieztapenak egiten dira

Akordioaren testuak dienez, "bi aldeak ados daude (...) zerga arloan aurrera egiteko beharreakin, aberastasuna zuzen banatzeko; kalitatezko zerbitzu publiko eta zaintza politikei eusteko beharreakin; eta trantsizio ekologikoa eta energetikoa bultzatzeko beharreakin".

Baieztapen hori propaganda hutsa da, eta ez du zerikusirik Nafarroako Gobernuak garatzen dituen politikekin. Lehenik eta behin, ez da inolako aurrerapenik egin zerga arloan, UPNren politika fiskal berarekin jarraitzen dugu, nahiz eta zazpi urte baino gehiago egin gobernutik atera zela (zerga karga langileriarri dagoekio, eta enpresek eta kapitalak ekarpen gutxi edo ezer ez dute egiten). Ildo horretan, irrigarria da legegintzaldi honetako aurrekontu akordio bakoitzean sozietateen gaineko zergari buruzko azterlanak egiteko konpromisoak sartzea, arazoa ez denean zergaren inguruko ezjakintasuna, borondate politikorik eza baizik.

Bigarrenik, Osasunbideko itxaron zerrendak oso altuak direnean, lehen mailako arreta saturatua dagoenean eta egoitzak funts putreetara azpikontratatuta daudenean kalitatezko zaintzako zerbitzu publikoen eta politiken sostenguaz hitz egitea hipokrisia hutsa da.

Eta hirugarrenik, Nafarroako Gobernuari trantsizio ekologikoaren eta energetikoaren bultzada aitortzea, bultzatzen ari dena AHT edo Erdizko meategia direnean, onartezina da.

4.3. Administrazio langileek erosteko ahalmen gehiago galduko dute

2023rako langile publikoentzat aurreikusitako soldata igoera % 3,5ekoa da, 2022rako aurreikusitako KPltik oso urrun, urteko batez bestekoaren % 8,9. Horrek erosteko ahalmena % 5 baino gehiago galtzea ekarriko luke sektore publikoko milaka langilerentzat. Horri gehitzen badiogu azken urteetan izandako galera % 16koa dela (zenbait ekitalditan KPlren azpitik dauden soldadak), datorren urterako galera hori metatutako % 20tik gorakoa izan liteke.

Tamalgarria da Nafarroako Gobernuak, alde batetik, Madrilgo politikari men egitea erabaki hori hartzeko, eta, bestetik, patronalari mezu bat bidaltzea inflazioaren aurrean langileria pobretu behar dela esanez. Are gehiago, Gobernuak osatzen duten alderdiek Madrilek agintzen duenaren aurrean ezer egiterik ez dutela esatea, beraiek Estatuko Gobernuaren aurrekontuak adosten dituzten bitartean.

4.4. Guardia Zibilak Foruazingora pasatzeko pasabidea mantentzen da

Aurrekontuen Lege Proiektuaren Bosgarren Xedapen Gehigarriak jasotzen duenez, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan sar ditzan Transferentzien Batzordeak zehazten dituen funtzionarioak eta/edo lan kontratuko langileak, ibilgailu motordunen trafikoaren eta zirkulazioaren arloan Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz.

Xedapen hori 2018ko Nafarroako Polizien Legearen garapenaren barruan kokatzen da. Legea UPNren, Geroa Baien eta EH Bilduren aldeko botoekin onartu zen, eta ELAk ez zuen babestu. Foru lege horrek bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusten du Guardia Zibileko kideak Foruazingoa integratzea.


Aurrekontuen Lege Proiektuak Guardia Zibilaren integrazioa gaitzez gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileei aplikatu beharreko ordainsari araudiaren gainetik jasotzen ari diren soldata osagarriak ordainduko zaizkie.

Duela gutxi argitaratu da EH Bilduren eta Madrilgo Gobernuaren arteko akordioa, non enegarenez Gobernuak trafikoaren eskumena transferitzeko konpromisoa hartzen duen. ELAk beti aldarrikatu du Foruzaingoak trafikoaren eskumena bere gain hartu behar duela, eta horretan ez dutela inolako lehentasunik izan behar izaera militarreko kidegoetako kideek, hala nola Guardia Zibilak. Eskumen hori bere gain hartzeak Foruzaingoaren plantilla handitzea ekarri behar du, eta prozesu horrekin batera beste polizia indar batzuen presentzia murriztu behar da. Horretarako, beharrezkoa da LEP bat deitzea.

5. EUROPA

Aurrekontuko bi partida nagusiek (osasuna eta hezkuntza) duten gastu eskasa ikusteko, beharrezkoa da Europako herrialdeekin alderatzea. Eurostaten eskura dauden 2020ko azken datuen arabera, EAEko osasun-gastua BPGaren % 5,7koa izan zen eta Nafarroakoa % 6koa, Europako batez bestekoa, berriz, % 8koa, bi puntu baino gehiago. Beste ekonomia batzuekin alderatuz gero, aldea askoz handiagoa da. Italian % 7,9koa izan zen ratioa, Alemanian % 8,5ekoa, Frantzian % 9koa eta Norvegian % 9,6koa.

Gastu publikoa osasunean (% BPG). EB-27, 2020



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina 2023ko Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuen, Eurostaten, Eustaten eta Nastaten datuak oinarri hartuta


Europako batez bestekoarekiko bi puntu gehiagoko alde horrek 2023ko aurrekontuan 2.050 milioi euroko igoera ekarriko luke EAEn eta 476 milioikoa Nafarroan, eta horrek osasun arloko aurrekontua % 44 eta % 36 gehiago handituko luke. Alde hori askoz handiagoa izango litzateke Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeekin alderatuz gero (EAEn 2.500-3.000 milioi euro gehiago eta Nafarroan 596-714 milioi, hurrenez hurren). Datu horiek erakusten dute oso urrun gaudela beste ekonomia aurreratu batzuetatik, eta osasunera bideratzen diren baliabideak, are gehiago bizi izan dugun egoeraren ondoren, oso eskasak direla.

2023ko EAEko eta Nafarroako aurrekontuen analisia: zer dago propagandaren atzean?

27. or.

Hezkuntzako gastua modu berean aztertzen badugu, ondorioak berdinak dira. 2020an, hezkuntzako BPGarekiko duen pisua % 4,24koa izan zen EAEn eta 3,4koa Nafarroan, eta Europako batez bestekoa, berriz, % 5ekoa. Ratioa Bulgarian, Errumanian eta Irlandan bakarrik izan zen okerragoa. Beste herrialde batzuetan, hala nola Frantzian, % 5,5ekoa izan zen; Belgikan, % 6,6koa; eta Islandian, handiena, % 7,7koa.

Gastu publikoa hezkuntzan (% BPG), EB-27, 2020



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina 2023ko Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuen, Eurostaten, Eustaten eta Nastaten datuak oinarri hartuta

Europako batez bestekoarekiko aldeak 677 milioi euro gehiago bideratuko lituzke Hezkuntzara EAEn (% 20 gehiago) eta 380 milioi Nafarroan (%41,8 gehiago), 2023rako aurreikusitakoa baino. Ikus daitekeenez, bi aurrekontu-partida nagusiak, osasuna eta hezkuntza, gutxietsita daude inguruko beste herrialde batzuekin alderatuz gero; izan ere, aurrekontuaren bi partida nagusiak Europako batez bestekoarekin berdinduko bagenu, aurrekontua 2.700 milioi eta 856 milioi euro baino gehiago handitu beharko litzateke.

6. ONDORIOAK

Langileria pobretze-prozesu orokorra pairatzen ari da, prezio altuak eta soldaten ez eguneratzea direla eta. Horregatik, 2023rako aurrekontuek garrantzi handia hartzen dute, pertsona ahulentzat babesa izan behar luketelako, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatu behar lituzketelako eta ongizatean, trantsizio ekosozialean eta kalitatezko enpleguan lagundu behar luketelako.

Ikusi ahal izan dugunez, 2023rako aurrekontu-proiektuek aurreko urteetako proiektuen ildoari jarraitzen diote, propaganda handia, baina errealitatean, kontuek aldaketa gutxi erakusten dituzte. Ez pandemia, ez inflazio-krisia, ez dirudi nahikoak direnik benetako gastu publiko hedakorra garatzeko.

EAEko aurrekontuei dagokionez, 2021ean izandako diru-sarrera publikoak espero zirenak baino askoz handiagoak izan ziren. Foru Aldundien ekarpenak eta Espainiako eta Europako transferentziak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak 2.200 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak izan zituen. Hala ere, diru-sarrera horiek ez ziren aprobeztatu gastu publikoa handitzeko; aurreikusita zegoen zorraren erdia jaulkitzeko erabili ziren, eta 1.000 milioi baino gehiago erabili gabe geratu ziren. 2022. urtean, Foru Aldundien ekarpenak aurrekontuan jasotakoa baino altuagoak izan arren, % 10eko defizita izatea aurreikusten da. Zerga-erreforma bati helduz gero, ez ginateke

defizit-egoerez ari. 2023rako aurrekontu-proiektuak aurreko urteetako ildotik jarraitzen du, eta gastu soziala oso gutxi handituko da 2022ko itxierarekin alderatuta. Osasunean egindako gastua jaitsi egin da, eta hezkuntzan maila berberetan mantendu da. Aurrekontu-proiektuak DSBEaren zenbatekoan murrizketak aplikatzea jasotzen jarraitzen du, baita etxebizitza-politiken zuzkidura oso txikia ere. Datorren urterako, lehen aldiz sartu dira MRR funts europarrak diru-sarreraren aurrekontuan, nahiz eta azken urteak xedapen gehigarri gisa sartu diren. Hala ere, funts horien gastua aztertuta, ez dute inolako egitura-aldaketarik eragiten aurrekontuan.

Nafarroaren kasuan, legealdi osoko aurrekonturik txarrena da, gizartearen eta sindikatuen parte-hartzerik gabe egindako aurrekontua. Aurrekontuaren hazkundera oso txikia da, eta KPlaren eta BPGaren hazkunde-aurreikuspenen oso azpitik dago. Horrek esan nahi du Administrazio Publikoak pisua galduko duela ekonomiarekiko. Beraz, austeritate-politiketara itzultzen da pandemiaren irakaspenetatik inolako ondorioirik atera gabe, eta etorkizuneko murrizketetarako bidea prestatzen da. EH Bildurekin lortutako akordioak ez du edukirik: aurrekontu osoa onartu dute eta aurrekontuaren % 0,26ren truke erreforma fiskalari uko egin diote. Legebiltzarreko ezkerreko estrategia politikoa aurrekontu- eta zerga-politika antisoziala baliozkotzea da. ELAk oposizio gisa jardungo duen ezker instituzionala nahi du, aurrekontu eta zerga politiken erabateko eraldaketa defendatzen dugun indar sindikal eta sozialekin aliatua izango dena. Ezkerreko zeregina ezin da aurrekontu antisozialak makillatzea mugatu, aurrekontuak ez baitira onak sinatzen dituenaren arabera, edukiaren arabera baizik.

Beraz, ondoriozta daiteke aurrekontu horiek kontinuitateak direla, eta, gainera, aukera handia galtzen dela urte askotan murriztu diren partidetan inbertsio handiagoa egiteko. Gastu publikoa ekonomiaren motorra da, eta, alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak pisu handiagoa izan beharko lukete inbertsio publikoaren bidez; baina ez bakarrik herritarrei zerbitzua ematen dieten gaitan, baita enpresa estrategikoetan eta balio erantsi handiagoa sortzen duten enpresetan ere.

7. PROPOSAMENAK

Sektore publikoak gidatu behar du langile-klasearen pobretze orokorrari aurre egiteko prozesua, eta aurrera egin behar du eskubide sozialak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-prestazioak) jasotzeko eskubide eraginkorra bermatzen, eredu-aldaketa beharrezkoa den premisatik abiatuta. Ezinbestekoa da bizi dugun krisi ekologikoari aurre egitea, eta horrek bultzada publiko handia eskatzen du egungo ekoizpen-, mugikortasun- eta kontsumo-eredua errotik eraldatzeko. Eredu aldaketa horrek lankidetzara publiko-pribatuarekin amaitu behar du, arlo publikotik enpresa estrategikoen kontrola bere gain hartzeko edo gizartearen beharrei erantzuneko dieten enpresa berriak sortzeko. Era berean, aurrekontu-politikak genero-ikuspegidun azterketa barne hartu behar du.

Egoera horren aurrean, ELAk ezinbestekotzat jotzen du neurriak hartzea, bai diru-sarreraren arloan, bai gastuen arloan:

1. Premiazko erreforma fiskala eta iruzur fiskalaren aurkako borroka

EAEko eta Nafarroako presio fiskala Europar Batasuneko batez-bestekoa baino askoz txikiagoa da. ELAk fiskalitateari buruz egindako txostenetan argi geratzen denez, hori soldataz kanpoko errentetan dagoen iruzur fiskalagatik eta errenta handiek, enpresek eta kapitalak ordaintzen dituzten zergak azken hamarkadetan onartutako erreforma fiskaletan murriztu direlako gertatu da. Presio fiskala Europako batez bestekoarekin parekatzeko, urtean biltzen direnak baino 4.640 milioi gehiago bildu beharko lirakeke EAEn eta 1.675 gehiago Nafarroan.

Horregatik, zergen egitura goitik behera berrikusi eta aldatu behar da, enpresen eta errenta handien interesak babesteko diseinatuta daudelako. Ez da justizia sozialik egongo bidezko zerga-sistematik gabe, hau da, justizia fiskala aberastasunaren birbanaketatik eta zerbitzu publikoak bermatzeko diru-bilketa nahikotik abiatu behar da. Horregatik, zorraren ordainketari aurre egin ahal izateko, etorkizunean murrizketarik aplikatu gabe, beharrezkoa da erreforma fiskala egitea. Erreforma horretan hainbat gai jorratu behar dira, eta zentzu horretan, ELAk neurri zehatzak proposatzen ditu diru-sarrera publikoak handitzeko. Besteak beste:

1. PFEZ progresiboagoa. Zerga-tasak igotzea eta eskala aldatzea, gehieneko tasa marjinala % 60ra eramanez; kapitalaren tarifa espezifikoa kentzea. BGAEaren eta pentsio-planen zerga-ordainketa aldatzea.
2. Sozietateen gaineko zerga: mozkinen gaineko % 25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, kerkariak eta pizgarriak ezabatzea eta 2021eko sozietateen gaineko zergaren aitortpenean erre-kargu berezi bat ezartzea, urte horretako irabazien % 50eko gutxienekoaren baliokidea.
3. Ondarearen, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga. Berariazko erre-kargu bat ezartzea, progresiboa eta % 1 eta % 10 artekoa.
4. Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko zuzkidura handitzea.

2. Arau fiskalen etendura aprobetxatzea gastu publikoa handitzeko

Aurreikusitako epeak betez, Europako Batzordeak iragarri berri du arau fiskalen erreforma bat egingo dela 2024tik aurrera. Erreforma horren helburua, funtsean, aurreko mugei eustea da, aurrekontuak handitzerakoan. Politika hori defizit eta zor handiena duten herrialdeetan aplikatuko da bereziki, Espainiako Estatuan, adibidez. Aurrekontua dauden aukeren azpitik ezartzeko egungo politikak muga handiagoak dakartza etorkizunerako.

3. Zorraren auditoria publikoa

Erakunde guztien zor publikoaren auditoria publikoa egin behar da, modu ez-legitimoan zer zati sortu den zehazteko, zati hori ordaintzea saihestuz. Herritarrek parte hartu behar dute prozesu horretan, eta Gobernuak eskatzen zaion informazio guztia ematera behartuta egon behar da, zor hori nola sortu den zehatz-mehatz aztertu ahal izateko.

4. Osasuneko inbertsio publikoa Europako batez bestekoarekin parekatzea

Adierazi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak osasunean duten aurrekontu-defizita Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta (% 8) oso handia da. Osasuneko aurrekontua % 2 handitu beharko litzateke BPGarekiko datorren urtean, hau da, 1.780 milioi eta 476 milioi euro, hain zuzen.

5. Hezkuntzako inbertsio publikoa Europako batez bestekoarekin parekatzea

Osasunean gertatzen den bezala, Hezkuntzako inbertsio publikoaren defizita handia da Europako batez bestekoaren aldean. Zehazki, aurrekontuak 2023rako aurreikusitakoa baino % 20 eta % 40 gehiago handitu beharko litzateke EAEn eta Nafarroan, hau da, 667 eta 380 milioi euroko igoera 2023ko aurrekontu-proiektuko kopuruekin alderatuta.

6. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko aurrekontua handitzea

ELAK etxebizitzari buruz egindako proposamenek atal honetako aurrekontuak BPGaren % 2raino hornitzeko beharra planteatzen dute, egungo EAEko % 0,21aren eta Nafarroako % 0,29aren aldean. Horrek aurrekontuak gutxienez 1.600 milioi eta 428 milioi eurotan handitzea ekarriko luke.

7. Bizitza merezi duen bizitza izateko aukera ematen duten diru-sarrera bermatuak izatea

Pertsona guztiei bizi baldintza duinak bermatu behar zaizkie. Lehenengo neurria DSBEaren eta Errenta Bermatuaren zenbatekoan azken urteetan aplikatutako murrizketetan atzera egitea izan behar da. Behar dituzten pertsona guztientzat diru-sarrera duinak izatea justizia sozialeko elementu bat da, eta, gainera, prekarietate handieneko eta soldata baxuko egoerak saihestuko lituzke.

Gainera, ELAK izapidetzen ari den DSBEaren erreforma bertan behera uzteko eskatu du, eztabaida soziala irekitzeko. Horren abiapuntua Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak aurkeztutako Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Herri Ekimen Legegilearen edukia izan beharko litzateke, 50.000 sinadura baino gehiagoren bermea izan zuena. Nafarroako kasuan, lehen urratsa Errenta Bermatua kalkulatzeko oinarria gisa LGSa finkatzea da.

8. Trantsizio ekosozialerako funts publikoa

Industria-politika enpresa handien interesei lotuta dago, klima-krisian erantzukizun handiena duten sektoreena barne. Bidezko trantsizio ekosozialak gehiago sozialaren interesak lehenestea eskatzen du, Petronor, Iberdrola edo lobby automobilistikoa bezalako enpresen interesen aurretik. Horregatik, ELAK trantsizio ekosozialerako funts publiko bat sortzeko beharra defendatzen du.

9. Aurrekontua genero-ikuspegiarekin aztertzea

Aurrekontuek gutxieneko genero-ikuspegia duen analisi bat jaso beharko lukete. ELAK eskatzen du 2023an ikuspegi horretatik azterketa zorrotza egin dadila, gizartearen parte-hartzearekin, eta gobernuek konpromisoa har dezatela azterketa horren ondoriozko aurrekontu-beharrei erantzuteko.

10. Administrazio publikoko langileen lan-baldintzak gure lurraldean adostea

Administrazio publikoko langileen lan-baldintzak gure lurraldean erabaki eta adostu behar dira. Horretarako, sektore publikoaren negoziazio kolektiboko mahaien emaitza errespetatzeko konpromiso politikoa eta mahai horietan akordioak lortzeko borondate politikoa egon behar dira.